



ASTE BERDEA

Ekainak > 04 - 10 > 2021

www.getxo.eus/asteberdea



Getxo

bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

GETXO

ASTE BERDEA

Getxoko Udaleko Ingurumen Sailak Aste Berdea antolatuko du aurten ere, ekainaren 4tik 10era. Astean zehar, dibulgazio-, informazio- eta partaidetza-jarduera ugari izango dira udalerrian, ingurumenarekiko sentikortasuna bultzatzen laguntzeko eta etorkizun-sen ekologikoa aldarrikatzeko helburuarekin.

Aurtengo gaia 'Zero kutsadura' izango da. Kutsadurak guztiengan du eragina: arnasten dugun airean, edaten dugun uretan edota elikagaiak landatzeko sailetan. Kutsadura da heriotza goiztiarren eta patologia mental eta fisikoen ingurumen-kausa nagusia. Gainera, haurrei, aurretiko gaixotasunak dituzten pertsonei eta adinekoei eragiten die bereziki.

Aurten, gizakiak sortutako hondakinei aurre egiteko eta etena jartzeko jarduerak proposatu ditugu. Naturan utzitako zabor horrek ekosistemen eta bertan bizi diren animalien zein landareen oreka aldatzen du.

EZINBESTEKOA DA JARDUERETAN IZENA EMATEA

OSTIRALA
04

18:15etik 19:15era
19:15etik 20:15era
Ontziratzea Kirol Portuan

BI IRTEERA

ITSASONTZIAN IRTEERA

Ibilbidea Abrako badiatik

Igo 'Bote Tours' ontzira eta ezagutu Abrako badiaren ingurumen-historia **Imanol López Díazen** eskutik. Imanol Ondare naturala eta kulturala interpretatzeko gidari eta geologo kolegiatua da. Halaber, hainbat arlotan aditua da: ekoturismoan eta ingurumen hezkuntzan, Kuarternarioan, ingurumenean eta jasagarritasunean, esaterako.

Ordubeteko bi irteera egingo dira. Jarduera ezin hobea da familiarrean gozatzeko. Eman izena!

LARUNBATA
05

16:00etatik 20:00etara
Algortako Geltokia Plaza

Euria egiten badu, San Nikolas plazan egingo da jarduera

BIGARREN ESKUKO AZOKA

Saldu erabiltzen ez dituzun gauza horiek! Oso erraza da. Zatoz **Algortako Geltokia plazara** eta utzi zure objektuak azokaren antolatzaileen esku. Guk geuk salgai jarriko ditugu. Formulario erraz bat bete beharko duzu utzitako objektuen zerrendarekin. Ez ahaztu salmenta-prezioa itsasgarrietan jartzea!

Azoka amaitezakoan, saldutakoaren zenbatekoa edo saldu ez den materiala jasotzera etorri beharko duzu, besterik ez.

Sal daitezkeen gauzak: liburuak, jostailuak, apaingarriak, tresnak, kirol-objektuak, musika... Ez dira onartuko arropa, osagarriak edo tamaina handiko gauzak. Gehienez 5 objektu pertsona bakoitzeko.

IGANDEA
06

11:00etatik 13:00etara
Getxoko Kirol Portua

HONDAKINEN BILKETA KAYAKEAN

Natura beste era batera zaintzeko aukera eskaini nahi dizugu.

Gure ingurune naturala garbitzeaz gain, plastikoen arazoaz jabetuko gara. Zabor-poltsa eta eskularru pare bat hartuko ditugu eta, segidan, hondakinen bila abiatuko gara kayak batean. **Nabigatzen** dugun bitartean, hondakin plastikoak bilduko ditugu, gure kostaldeak zein mundu osoak jasaten duten arazo latz hau agerian jartzeko asmoz.

Aparteko jarduera da **familiar gozatzeko** eta ingurumenarekiko errespetua zabalitzeko.

ASTE BERDEKO JARDUERAK

OSTIRALA 04 ITSASONTZIAN IRTEERA

18:15etik 19:15era / 19:15etik 20:15era
ONTZIRATZEA KIROL-PORTUAN

Igo 'Bote Tours' ontzira eta ezagutu Abrako badiaren ingurumen-historia Imanol López Díazren eskutik. Bi irteera. Edukiera: 20 pertsona irteera bakoitzeko. Familia-jarduera.

BI
IRTEERA



IBILBIDEA BIZIKLETA ELEKTRIKOAN

18:30etik 20:30era - BIZKAIA ZUBIA

Igo bizikleta elektriko batean eta gozatu Getxoko kostaldeaz. Herriko ondare naturala, historikoa eta kulturala izango dira ibilbide zirkular honetako protagonistak. Eman izena Getxoko erakargarriak ezagutzeko jarduera osasungarri eta ekologiko honetan!

LARUNBATA 05 HEGAZTIEN ERAZTUNKETA

08:30etatik 11:30etara

BOLUEKO HEZEGUNEKO PONPA ETXEA

Ezagutu Bolueko hezegunean bizi diren hegazti-espezieak. Hegaztien kopurua handiagoa da egunaren lehenengo orduetan. Jarduera bertan behera utziko da eguraldi txarra egiten badu.

3 TXANDA



AZKORRIKO TXILARDIAK BERRESKURATZEN

09:30etatik 13:00etara - AZKORRIKO APARKALEKUA

PLASTIKORIK GABEKO JARDUERA LIBREA; EKARRI KANTINPLORA BAT. Zatoz ingurumenaren aldeko boluntariotza-jarduera honetan parte hartzera. Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea da gure asmoa. Gainera, Azkorriko txilardiak berreskuratzeke proiektua azalduko dizugu.

RAID ABENTURA

11:00etatik 13:00etara - AIXERROTAKO ERROTA

Taldean egiteko eta naturaz gozatzeko abentura proba. Jarduera gainditzeko, hainbat kontrol-gunetatik igaro beharko duzue. Orientazioa eta estrategia funtsezkoak izango dira!



BIGARREN ESKUKO AZOKA

16:00etatik 20:00etara
ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Ekarri erabiltzen ez dituzun gauza horiek, eta salgai jarriko ditugu. Formulario erraz bat bete beharko duzu utzitako objektuen zerrendarekin. Ez ahaztu salmenta-prezioa emango dizkizugun itsasgarrietan jartzea!

Euria egiten badu,
San Nikolas plazan
egingo da jarduera


GAUEKO MARTXA

22:00etatik 00:00etara
FADURAKO APARKALEKUA

Argi frontala emango dizugu mendi-ibilaldi gidatua egiteko Getxoko bide eta zidorretan barna, izarrez eta naturaren gaueko soinuez gozaten dugun bitartean.



IGANDEA 06



HONDAKINEN BILKETA KAYAKEAN

11:00etatik 13:00etara
KIROL-PORTUA

Zaborrak eta mikroplastikoek gure hondartzetan eta itsasoan duten ondorioak kayak batetik antzemateko aukera izango duzu. Aparteko jarduera da familian gozatzeko eta ingurumenarekiko errespetua zabaltzeko.

MENDI-IBILBIDEA

09:00etatik 13:00etara - ETORKIZUNA KLUBA
(Basagoiti etorbidea, 69 behea - Algorta)

Mendi-ibilbide zirkularra Getxon zehar, Etorkizuna Mendi Klubaren eskutik. Familia-jarduera.



GEOIBILBIDEA. Iraganera bidaia Galean zehar

10:30etik 13:00etara - GALEAKO GOTORLEKUA

Galea pasealekua Getxoko kostaldean zehar bihurka doa, Barrikaraino. Hainbat hondartza, arroka, fosil eta egitura topatuko ditugu ibilbidean, bertoko historiaren lekuko izan direnak eta eremu honi "Getxoko flyscha" zergatik deritzogun azaltzen digutenak.

EZAGUTU GURE ZUHAITZAK

11:00etatik 12:00etara. ALGORTA. Algortako Geltokia plaza
12:30etik 13:30era. AREETA. Areetako Geltokia Plaza

Ibilbide honetan Algorta eta Areetako zuhaitzen eta hegaztien ezaugarriak, kontserbazio-egoera, ekartzen dizkiguten onurak eta aurrean dituzten arriskuak zeintzuk diren ezagutzeko aukera izango dugu, Eduardo Renovalesen eskutik.



ASTELEHENA 07 TIK ASTEAZKENA 09 RA

GURUTZE GORRIA. ATE IREKIAK

18:00etatik 19:30etara. ARRILUZEGO KAIA

Bisita gidatu honetan lehen laguntzek hondartzetan duten garrantziaren berri emango digute. Marmoka-zitadak, itsas trikuak, ebakiak, intsolazioak edo bero-kolpeak, altueretatik uretara jauzi egitea eta halako gaiak jorratuko ditugu. Gainera, apnari buruz hitz egingo dugu, eta salbamendu-ontzi bat eta -erakustaldia ikusteko aukera izango dugu.



ASTELEHENA 07

BARATZE BERTIKALA TAILERRA

18:00etatik 20:00etara - AREETAKO GELTOKIA PLAZA

Baratzea etxera eramango dizugu gure inguruan aurkitutako ontziak erabiliz. Balkoi, terraza edo lorategi txiki bat baduzu, tailer honetan baratze txiki bat ekologikoki lantzen ikasiko duzu, barazkiekin eta landare osagarriekin.



Euria egiten badu,
San Nikolas plazan
egingo da jarduera

ASTEARTEA 08 COOKING CHALLENGE



18:00etatik 20:00etara - AZKORRI ALDEA

Elikadura osasungarriko sukaldaritza-tailer honek "Master Chef"-eko partaide bat zarela sentiaraziko dizu. Hiru errezeta prestatuko ditugu: gosaria, bazkaria eta afarirako, elikagaien proteinak, hidratoak eta abar kontuan hartuta.

ASTEAZKENA 09

NATURARI BURUZKO FAMILIA-TAILERRAK



18:00etatik 20:00etara
ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Bi tailer. Lehenengoan, inguruko elementu batzuen pH-a eta azidotasuna neurtuko ditugu. Bigarren tailerrean, Mininikroskopioa izenekoan, mikroskopioak erabiltzen eta zenbait elementu naturalen sekretuak behatzen eta ulertzen ikasiko dugu.

Euria egiten badu,
San Nikolas plazan
egingo da jarduera

OSTEGUNA 10 ARTILE-MANDALA TAILERRA



18:00etatik 20:00etara
AREETAKO GELTOKIA PLAZA

Adin eta maila guztietarako tailerra. 4 puntako mandala egin eta etxera eramanez ahal izango duzu. Mandalak oso tresna ederrak dira, norberaren sormenarekin konektatzen, erlaxatzen eta estres-maila murrizten laguntzen digutenak.

EZINBESTEKOA DA JARDUERETAN IZENA EMATEA:

Telefonoz: **605 74 90 64**. E-postaz:
getxoasteberdea@gmail.com helbidera idatzi, hautatutako jarduera, izen-abizenak eta telefono mugikor zenbakia adieraziz. Jarduera guztiak doakoak dira. Euria egiten badu, jarduerak lekualdatuko dira. Kokapen berriaren berri www.getxo.eu/asteberdea webgunean emango da.